MUSIKA ETA FOLKLOREAREN HISTORIA

HELBURUAK:

-Musika lanak eratzen dituen elementuak ezagutzea.

-Aro eta estetika musikal ezberdinak ezagutzea.

-Gertakari musikala beste aspektu soziokulturalekin harremanetan jartzea.

-Konposagile eta bere musika lanen ezagupenean sakontzea.

-Euskal herriko folkloreak dituen oinarrizko ezaugarri batzuk ezberdintzea.

-Musika herrikoiari buruzko ezagupena zabaltzea.

-Gaur egungo musikak duen esanguraz eta dimentsioaz ohartu.

GAIAK:

I Obra musikal bat osatzen duten elementuak

Soinuaren parametroak. Barneko elementuak: erritmoa, melodia, textura, forma, adierazpena, jeneroa eta estiloa. Kanpoko elementuak: musika-tresnak eta musikajolea.

II Musika denboraren zehar

Musika lehenengo gizarteetan. Musika Erdi Aroan: monofonia, polifonia. Errenazimentua. Barrokoa. Klasizismoa. Erromantizismoa. XIX. mendeko Opera. Nazionalismoa. Inpresionismoa.

III Musika XX. mendean

Atonalismoa. Dodekafonismoa. Serialismoa. Musica konkretoa. Musika elektronikoa. Elektroakustika. Musika aleatorioa. Musika estokastikoa. Bestelako musika mintzairak.

IV Beste kultura musikal batzuk

Kultura afrikarra. Kultura amerikarra. Ekialdeko kulturak.

V Musika herrikoia

Jazz. Rock. Folklorea.

BIBLIOGRAFIA

AUSTIN, N. "La Música en el Siglo XX". ED. Taurus
CALAWELL, J. (1984) "La Música Medieval". ED. Alianza
CANDE, R. (1981) "Historia Universal de la Música". ED. Aguilar
COCKER, J. "El Lenguaje del Jazz". ED. Victor Leru

FOLKLORE

BIBLIOGRAFIA

ARANA MARTIJA, José Antonio, *Música vasca*, Caja de Ahorros Vizcaína, Bilbao, 1987.
ARISTI, Pako, *Euskal Kantagintza, 1961-1985*, Erein, Donostia, 1985.
ARRARAS, Francisco, *Danzas e indumentaria de Navarra*, Departamento de Educación y Cultura del Gobierno de Navarra, 1987.
AULESTIA, Gorka, *Bertsolarismo*, Bizkaiko Foru Aldundia, 1990.
AZKUE, Resurrección María,
-*Cancionero Popular Vasco*, Euskaltzaindia, Bilbao, 1990.
-*La Música Popular Baskongada*, Conferencia, Bilbao, 1901.
-*Euskaleriaren Yakintza (Literatura popular del País Vasco)*, Espasa-Calpé, S.A., Madrid, 1966.
BARANDIARAN, Gaizka de, *Danzas de Euskalerri*, Colección Auñamendi.
BARTOK, Béla, *Escritos sobre música popular*, siglo XXI, 1979.
BARRENETXEA, José Mariano, *Apuntes de Txistu*, Galdakano-Bizkaia, 1984.
CARO BAROJA, Julio, *Los vascos*, Istmo, Madrid, 1986, pp. 354-372.
CRIVILLE I BARGALLO. Josep,
-*La etnomusicología: sus criterios e investigaciones. Necesidad de esta disciplina en el tratamiento de toda música de tradición oral*, I Concgreso Nacional de Musicología, Sociedad Española de Musicología, Institución "Fernando el Católico" de la Excma Diputación Provincial de Zaragoza, Zaragoza, 1981, pp. 143-166.
-*Historia de la música española. El folklore musical*, Alianza, 1983.
DONOSTIA, P.J.A. de, *Obras Completas del P. Donostia. Obra Literaria*. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1983.
DONOSTIA, J.A. de y MADINA, F. de *De música vasca*, Biblioteca de Cultura Vasca. Editorial Vasca Ekin, Buenos Aires, 1953.
CHAILLEY, Jacques, *Compendio de musicología*, Alianza, Madrid,1991, pp.61-87.
DIAZ VIANA, Luis, *Música y Culturas*, Eudema S.A. (Ediciones de la Universidad Complutense, S.A.), Madrid, 1993.
ETXEBARRIA, J. L., *Danzas de Bizkaia*.
EUSKO-IKASKUNTZA,
-*Cuadernos de Sección de Música*, Eusko Ikaskuntza, Donostia
-*Cuadernos de Sección de Folklore*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
GASCUE, F., *Materiales para el estudio del folk-lore músico vasco. Las gamas célticas y las melodías populares euskaras*, en la Revista Internacional de Estudios Vascos, San Sebastián 1917.
FRANCO-LAO, Meri, *Música bruja. La mujer en la música*, Icaria, Barcelona, 1980.
HOYOS SAINZ, Luis de, *Manual de Folklore*, Ediciones Istmo, Madrid, 1985.
IZTUETA, J.I., *Viejas danzas de Guipúzcoa. Gipuzkoa'ko Dantza Gogoangarriak*, Edición del P.S. Onaindia, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1968.
LEKUONA, Manuel de, *Literatura Oral Vasca*, Auñamendi, Donostia, 1964.
LOCATELLI DE PERGAMO, A. M., *Historia de la música. La música Tribal, Oriental y de las Antiguas Culturas Mediterráneas*, Historia de la Música Tomo I, Ricordi, Buenos Aires, 1980, pp. 5-60.
LOROÑO A., y DEL CAMPO, P. *La transformación de la música. Ensayo sobre la obra de Marius Schneider*, en "Manual de Musicoterapia", Cuadernos de Integral, Barcelona, 1987, pp. 17-35.

MALM, William P., *Culturas musicales del Pacífico, el Cercano Oriente y Asia*, Alianza, Madrid, 1985.
MICHELS, Ulrich, *Atlas de Música, I*, Alianza, Madrid, 1987, pp. 11-13 y 158-159.
NETTL, Bruno, *Música folklórica y tradicional de los continentes occidentales*, Alianza,1985.
SACHS, Curt
-*Musicología comparada. La música de las culturas exóticas*, Eudeba, Buenos Aires, 1966.
-*Historia universal de los instrumentos musicales*, Centurión, Buenos Aires, 1947.
-*Historia Universal de la Danza*, Ediciones Centurión, Buenos Aires, 1944.
SALAZAR, A., *La música de España. Vol. I: Desde las cuevas prehistóricas hasta el siglo XVI*. Espasa-Calpé, Colección Austral, nº 1514, Madrid, 1972. Capítulo I.
SMALL, Christopher, *Música. Sociedad. Educación*. Alianza, Madrid, 1989.
TRANCHEFORT, François-René, *Los instrumentos musicales en el mundo*, Alianza, Madrid, 1985.
TUR MAYANS, Pío, *Reflexiones sobre Educación Musical. Historia del pensamiento filosófico musical*, Publicacions de la Universitat de Barcelona, Barcelona, 1992, pp. 19-93.
URBELTZ, Juan Antonio,
-*Música militar en el País Vasco*, Pamiela, Pamplona, 1989.
-*Dantzak*, Caja Laboral Popular, Bilbao, 1978.

BIDEOAK
Ama Lur, Gobierno de Navarra, 1992.
Euskal Herriko Soinu Tresnak, Dir. J.M. Beltrán.
Alakiketan, Coreografía de danzas vascas de J.A. Urbeltz
Navarra Cuatro Estaciones

1go Zinta

GREZIA/ERROMA, ***Seikilos (estela funerarioa)***

ERDI AROA, ***Codex Calixtinus,*** Magister Anselmus (XII. m.)

ERRENAZIMENTUA, ***A l'ombre d'un boissonet,*** Josquin des Prés (XVI. m.)

BARROKOA, ***San Juanek idatzitakoaren araberaren Pasioa,*** J.S. Bach (1723)

KLASIZISMOA, ***Sonata K 311 Re Maiorrean*** (1778), Mozart

ERROMANTIZISMOA, ***Lied,*** (1814), Schubert

NAZIONALISMOA, ***Alhambraren Oroipenak,*** Tárrega (1854-1909)

INPRESIONISMOA, ***Gymnopédie I,*** Satie (1866-1925)

XX. MENDEA (hasiera), ***Udaberriaren Konsagrazioa (Sakrifizioaren Dantza),*** Stravinsky (1882-1971)

XX. MENDEA (gaur egun), ***Corale*** (1981), Berio. Serialismoa.

Musika modala. Kantu gregorianoa.*Kyrie*

Musika ez-tonala. A. Berg (1885-1935), *Bibolinarako kontzertua*

Musika tonala. Schubert *Amuarrainaren kintetoa* (4. mugimendua)

Konpas bitarra. Johann Strauss, *Radetzky Martxa*

Konpas lautarra. Mozart, *Gau Serenata Txikia* (1go mugimendua)

Konpas hirutarra. Johann Strauss, *Danubio urdina*

Azpizatiketa hirutarra. Smetana *Moldava hibaia*

Erritmo librea. Kantu gregorianoa. *Gloria*

Konpas lautarra. *Kanuto*

Konpas bitarra. *Din dan, nor hil da?*

Konpas hirutarra. *Lastozko zubia*

Azpizatiketa hirutarra. *Katuaren testamentua*

Textura monofonikoa. Kantu gregorianoa. *Puer natus est*

Textura polifonikoa-kontrapuntistikoa. Gesualdo (1560-1613), *Moro, lasso al mio duolo*

Textura armonikoa-homofonikoa. Beethoven (1770-1827), *Pianorako 14. sonata*

Textura ez-melodikoa. C. Halffter, *Ispiluak* (1930)

MUSIKAREN HISTORIAREN GARAIAK

MUSIKA TRIBALA: *Mogombi* (Ehizarako deiak). Aka pigmeoak (Afrika)

ANTZIN AROA *Seikilos* (estela funerarioa), Grezia/Erroma

ERDI AROA
Monodia gregorianoa
Puer natus est (Introitoa)
Polifonia
Sit gloria domini (Organum paraleloa)
St. Magnus (Himnoa)
Cunctipotens genitor Deus (Ad organum daciendum)
Cunctipotens genitor Deus (Ars Antiqua)
Perotinus, *Viderunt omnes*, (XIII. m.)
Monodia lirikoa
Bernart de Ventadorn (...1147-1170...), *Laudeta mugitzen ikusten dudanean*

2. Zinta

ERRENAZIMENTUA
Josquin des Prés (1140-1521), *A l'ombre d'un boissonet*
Palestrina (1525-1594), *Missa Papae Maecelli: Benedictus*
Gesualdo (1560-1613), *Moro, lasso al mio duolo*

BARROKOA
Ahotsetarako musika
Monteverdi (1567-1643), *L'Orfeo*. Aria
Bach (1685-1750), *Kantata BWV 40*. Aria
Kantata BWV 56 . Errezitatiboa
Haendel1685-1759) (*Mesias: Alleluia* (Koroa)
Musika Instrumentala
Bach *5. Brandemburgoko kontzertua.* Grosso Kontzertua
Vivaldi (1678-1741), *Lau Urte Aroak: Udazkena* (1go mug.). Bakarlari Kontzertua
Couperin/1668-1733), *Pasacaille* (Klabezina)
Oxinaga (1719-1789), *Sonata de 5º tono.* (Organoa)

KLASIZISMOA
Musika Instrumentala
Mozart (1756-1791), *Gau Serenata Txikia. Sol maiorrean* (1go mugimendua)
Pianorako Sonata K. 311. Re maiorrean
Haydn (1732-1809), *104. Sinfonia: London* (1go mugimendua)
Beethoven (1770-1827), *Udaberria. Bibolin eta Pianorentzako Sonata. Fa maiorrean (1go. mug.)*
Haydn, *Enperadore Laukotea* (2. mug.)
Arriaga (1806-1826), 2. *Laukotea* (1go mug.)
Ahotsetarako musika
Haydn, *Sorkuntza Oratoria: Errezitatibo eta koroa*
Mozart, *Xirula magikoa: Gauaren erreginaren errezitatibo eta aria*

3. Zinta

Erromantizismoruntz
Beethoven, *5. Piano eta Orkestarako Kontzertua*

ERROMANTIZISMOA
Beethoven, *9. Sinfonia.* (4. mug.)
Pianoa
Chopin (1810-1849), *Iraultzaile* (Estudioa)
Liszt (1811-1886), *Maitasunaren ametsa* (Nocturno)
Schumann (1810-1856), *Haurren irudiak: ametsa*
Schubert (1797-1828), *Une musikala fa minorrean*
Orkesta
Brahms (1833-1897), *5. Dantza hungariarra*
Mendelssohn (1809-1847), *Bibolinarako kontzertua* (1. mug.)
Berlioz (1803-1869), *Sinfonia Fantastikoa* (2. mug.)
Richard Strauss (1864-1949), *Horrela hitzegiten zuen Zaratustrak*
Lied
Schubert, *Errotari ederra "Ibiltzen"*
Mahler (1860-1911) *Lurraren kanta "Edertasunarena*
Opera
Rossini (1792-1868), *Sevillako bizargina. "Obertura"*
Verdi (1813-1901), *Rigoletto "Andra, aldakorra da"* "
Wagner ((1813-1883), *Tristan eta Isolda* (Leit Motiv)

4. Zinta

Wagner, *Nibelungoaren eraztuna: Walkiyiak "Walkiyien kabalgata"*
Verdi, *Nabucco "Aurrera pentsamendua!"*
Bizet (1838-1875), *Carmen "Maitasuna txori bihurra da"*

NAZIONALISMOA
EUROPA
Mussorgsky (1839-1881), *Erakusketa bateko koadroak "Kiev-eko ate nagusia"*
Rimsky-Korsakov (1844-1908), *Scherezade*
Chaikovski (1840-1893), *Intxaur-huskailua Dantza errusiarra: Trépak*
Dvorak (1841-1904), *Mundu berriko Sinfonia* (1go mug.)
Grieg (1843-1907), *Peer Gynt "Goizaldea"*
Kodály (1882-1967, *Háry János "Abestia (Háry)"*
ESPAINIA
Falla (1876-1946), *Sorgin maitasuna "Maitasun minduaren kantua"*
Albéniz (1860-1909), *Asturias*
EUSKAL HERRIA
Guridi (1886-1961), *Euska Hamarl Melodia*
AMERIKA
Gershwin (1898-1937), *Rapsodia in blue*

INPRESIONISMOA
Debussy (1862-1918), *Fauno baten siestarako Preludioa*
Satie (1866-1925), *Gymnopédie I*
Ravel (1875-1937), *Boleroa*

5. Zinta

XX. MENDEA

HASIERA

STRAVINSKY (Errusia, 1886-1973), *Udaberrian Sagaratzea*
SHOENBERG (Austria, 1885-1951), *Pierrot Lunaire: Der Mondfleck*
BERG (Austria, 1885-1935), *Wozzeck. Heinfahrt*
HONEGGER (Suitza, 1879-1936), *Pacific 231*
RESPIGHI (Italia 1879-1936), *La Fontana del Tritone al mattino*
IVES (Estatu Batuak, 1874-1954), *The three places in New England: The St. Gaudens in Boston Commons*
VILLA-LOBOS (Brasil, 1887-1959), *Suite popular brasilaeña: Chorinho.*

2. ERDIA

MOMPOU (Katalunia, 1901-), *Los improperios: Popule meus*
MESSIAEN (Frantzia, 1908-),*Cuarteto para el fin de los tiempos: Liturgia de cristal*
MILHAUD (Frantzia, 1892-1974), *Perkusiorako Kontzertua*
BERIO (Italia, 1925), *Corale*
STOCKHAUSEN (Alemania, 1928), *Gruppen*
ESCUDERO (Donostia, 1913), *Ileta: Azken Agurra*
BERNAOLA (Otxandio, 1929), *Béla Bartok-I Omenaldia*
DE PABLO (Bilbao, 1930), *Pardon*
GONZÁLEZ ACILU (Altsasu, 1929), *Arrano Beltza*
CATALÁN (Iruñea, 1951), *Zenbaki gabeko laukotea* (2. mug.)
FERNÁNDEZ DE GERENABARRENA (Gasteiz, 1965), *Marizoro*
LAZKANO (Donostia,, 1968), *Ilargi uneak: Izar*
ERKOREKA (Bilbo, 1969), *Nubes: Cúmulos I*

Folklore

TXINA. Musika instrumentala (haizea eta perkusioa)
KAMERUN. Baka pigmeoen musika
UKRAINIA. Musika herrikoia
TIBET. Errituala
EGYPTO. Taqasim & Layali
AUSTRALIA. Aborigen musika
BOLIVIA. Musika Andetarra
CACERES. Arroró (sehaska kanta)
EUSKAL HERRIA:

-Sehaska kantak: *Bili bili bonbolo*
- " *Binbili Bonbolo*
- " *Atzo ttun ttun*
- " "

-Haur kanta. *Hiru bortzeko*
-Dantza. *Axuri Beltza*
-Sehaska kanta. *Campo de Volantinen*
-Txakolin txakolin
-Santa Ageda
-Bertsolariak
-Ortzian izar ederra
-Ama zer egiten den
-Amak zeuriak neuri
-Lo-lo
-Mutildantza kanta
-Haurra egizu lo-lotxo

-Kaila kantuz
-Apirililla
-Olebtzero
-Ixil-ixilik (tenorea. Urdiain. Bilboko Orkestra Sinfonikoa)

MUNDUKO MUSIKA-TRESNAK
Sanasa. Idiofonoa (Afrika)
Egurrezko danborrak. Tan-tan. Idiofonoa (Afrika)
Darbouka. Menbranofonoa (Rgipto)
Ginbarda. Idiofonoa (Rajastan)
Pan flautak. Aerofonoa (Salomon irlak)

EUSKAL MUSIKA-TRESNAK
Txistu baserritarra. *Jota fandango*
Arin-arin kaxarranka
Txistu eta atabala. *Billantzikoa*
Txistulari banda. *Neska-mutilak azkenean pozik*
Dultzaina eta atabala. *Jotea eta arin-arin*
Nafarroako gaita. *Rigodon*
Alboka. *Porrusaldea buelta bikoa*
Trikitrixa. *Biribilketa*
Txalaparta.

DANTZA
Maskaradetako

PASTORALA
Harizpe Pastorala:
-Lehen Pederikua
-Satanak
-Ordu da

BERTSOLARIAK
Lopategi. Hamarreko txikia
Amuriza-Lopategi. Zortziko txikia
Amuriza. Musika berria inprobisatuz

IRRINTZI

Iratxe

MUSIKAREN HISTORIA: KRONOLOGIA LABURRA

AINTZIN AROA

Grezia, Erroma. V. menderaino, Erromatar Inperioa desegiten denean.

ERDI AROA

Garai honetako dokumenturik ez dago, ahozko tradizioa baizik. Mendebaldeko kulturaren barruan kanto gregorianoa daukagu (monodikoa), musika erlijiosoa. Ez ziren instrumenturik erabiltzen, Elizak debekatuta zituen.

ERRENAZIMENDUA XV - XVI

XV. mendea. Garai honetan ahotsetarako musika nabaritzen da, musika polifonikoa egiten dutelarik.

BARROKOA 1600-1750

XVII. mendea. Instrumentuak gehiago erbiltzen dira. Apaindura asko daude melodietan, ornamentazioa ezaugarri nabaria da. Ahotsetarako musika gehienetan instrumentuekin joango da. Instrumentuen garapena garrantzitsua da, orkesta sortzen doa.

KLASIZISMOA 1750 - 1810

XVIII. mende erdialdean. Musika arrazionala. Garai honetan Ilustrazioa sortzen da. Sonata forma nagusitzen da. Obra guztietan sonataren egitura ematen da:

1) Bi gai daude, A eta B, tonalitate ezberdinean (tonika eta dominantea)
2) Garapena
3) A eta B, tonalitate berean (tonika)

ERROMANTIZISMOA 1810 - XIX erdialdea

XIX. mendeko lehenengo hamarkada. Sentimendua adierazten duen musika. Frantziako Iraultzaren ondorioz Europa osoa aldatzen da. Beethoven-ek bere musika aldatzen du, anaitasuna, berdintasuna eta askatasunaren ideiak zabaltzeko. Pianoa instrumentu nagusia izango da, eta musika asko dago

berarentzat. Garai honen barruan **nazionalismoa** garatzen da hainbat herritan. Musika honetan herri bakoitzeko folklorea goraipatzen da, tradiziozko musika.

INPRESIONISMOA

XIX. mendearen amaieran. Frantzian garatzen da, beste herrialdetan post-erromantizismoa edo nazionalismoan daude. Debussy-rekin garatzen da batez ere.

Barrokotik ordurarte tonalitatearen barruan egon da musika, baina orain kromatismoa sortzen da. Tonalitatea gehiegi erabili dela esaten dute eta proposamen ezberdinak eskeintzen dira.

XIX. MENDEA

Tonalitatea guztiz apurtzen da, atonalismoa lantzen da. Sistema diatoniko baztertzen dute, eta erritmo tradizionalarekin ere, musika egiteko erak erabat aldatzen direlarik. Melodiak zeukan garrantzia baztertzen da, era ezberdinak sortuz, adibidez, tinbrea aztertzea.

Historian zehar herri guztiak adierazteko moduak bilatu dituzte, eta hauetariko bat musika izan da. Kulturaren barruan pisu handia dauka eta izan du beti.

Musika: soinuen antolaketa, konbinaketa.

Soinua: airean ematen den bibrazio erregularrak sortzen duena, gure belarrira heltzen dena. Fenomeno fisiko bat da. Bere parametroak:

- altuera
- intentsitatea
- tinbrea
- iraupena

Musikaren barruan beste elementu batzuk daude:

- Erritmoa
- Melodia: tono eta iraupen ezberdineko soinuak erlazio bat beterik bata bestearen atzean doazenean.
- Armonia
- Tinbrea
- Egitura (forma)

OBRA MUSIKAL BAT OSATZEN DUTEN ELEMENTUAK

Testura polifonikoa edo kontrapuntistikoa: musika mota honetan ahots ezberdinak aldi berean konbinatzen dira, haietariko bakoitzak bere identitatea gordetzen duelarik.

Testura homofonikoa: polifonia ematen da baina ahots batek interes melodikoa darama eta besteetan akonpainamendua egiten da, akordeekin, adibidez. Melodiak idazkera horizontala du eta akonpainamenduak bertikala.

Testura monofonikoa: lerro melodiko bakarra dago, eta ez dago akonpainamendurik. Hau ematen da kantu gregorianoan.

Testura ez-melodikoa: melodia edo aspektu melodikoak ez dira garrantzitsuak, baizik eta tinbrea, intentsitatea, erritmoa...

Idazketa horizontala: lerro melodikoak garrantzi bera dute: testura homofonikoan, monodikoak eta kontrapuntistikoan.

Idazketa bertikala: testura homofoniko edo armonikoan, akordeak ematen direnean.

ARMONIA

*Soinu bat baino gehiago aldi berean ematen direnean, soinu horiek belarrira ondo ailegatzeko arauak ezartzen dira. Gero ondo edo txarto entzuten diren arabera kontsonante edo disonante kontzeptuak asmatzen dira.

*Noten arteko erlazioa aldi beran entzuten direnean, eta erlazio hauek denboran antolatzen diren modua; baita ere aldi berean entzuten diren nota konkretu batzuen kolekzioa, akorde izena duena.

ERRITMOA

Denboraren pertzepzioa pultso edo erritmoaren arabera doa. Azentuaren arabera pultsoak taldekatzen doaz, konpas ezberdinak osatuz, eta erritmoa sortuz. Musika denboraren menpe dago. Adibidez: erritmo bitarra pultsoa binaka antolatzen denean eta azentua lehenengoan jartzen denean sortzen da.

FORMA

Musikaren elementuak según nola antolatzen diren obra batean, forma ezberdinak sortzen dira. Forma musikal asko daude, arruntenak:

Gai bakarra erabiltzen denean:

- A.
- Bariazioak.
- Canon. A................
  A.............
  A........

Bi gai erabiltzen direnean:

- AB
- ABA: lied
- ABAB: rondo

Bi gai baino gehiago:

- Fuga: gai bat baino gehiago era kontrapuntistikoan azaltzen direnean.
- Sonata: hiru zati ditu:
  1) Aurkezpena: A gaia tonikaren tonoan eta B gaia dominantearen tonoan. A, B -> I, V
  2) Garapena: dominantean hasi eta tonikan amaitzen da, aurkezpenean dauden elementuak erabiltzen direlarik. V – I
  3) Berraurkezpena: A eta B gaiak, tonikaren tonoan. A, B -> I
  4) Coda I

GENERO ETA FORMA

Aspektu formala obraren egiturari dagokio, eta generoa konposizioaren edukinari.

Bi sailkapen ezberdin daude **GENERO**-ari dagokionez:

1. Sailkapena: edukinaren araberakoa

- **Musika erlijiosoa / Musika profanoa**
- **Musika kultoa / Musika herrikoia**
- **Musika deskriptiboa** (musikaz kanpoko zerbait deskribatzen denean) / **Musika dramatikoa** (antzezten dena)
- **Musika programatikoa** (gidoi literario edo programa bat jarraitzen duenean)
- **Musika puroa - abstraktoa**

2. Sailkapena: aspektuaren araberakoa

- **Musika instrumentala:**
  - musika orkestala: sinfonia, obertura, kontzertua...
  - ganbara musika
  - teklatuarentzako musika

- **Ahotsetarako musika:**
  - sakroa: meza, requiem, oratorioa, kantata, motete...
  - profanoa: ez erlijiosoa

- **Musika dramatikoa:**
  - opera
  - ballet
  - musika inzidentala: gidoi literarioa erabiltzen du

FORMAK

FORMA SINPLEAK
(mugimendu bakarrekoak)

- **Errepikapenez garatzen direnak**
  - Bitarra, hirutarra
  - Bariazioak
  - Rondo ABAB
  - sonata
- **Imitazioz garatzen direnak**
  - Kanon
  - Fuga
  - Madrigalak
  - Kantu polifonikoak

FORMA KONPOSATUAK

- **Instrumentalak**
  (1. hiru formetan 1. mug. sonata forma du)
  - Sonata (*)
  - Kontzertuak (**)
  - Sinfonia (***)
  - Tocatta, Suite, Preludio
- **Ahotsezkoak**
  - Kantata
  - Oratorio
  - Meza
  - Pasioak
  - Opera

FORMA LIBREAK

- Barkarola
- Fantasia
- Poema sinfonikoa

* **Mugimendu gehiagorekin**

** **Sonata antzekoa baina orkestarako, bakarlari talde bakar batekin**

*** **Ez dago bakarlaririk**

MUSIKAREN HISTORIAREN GARAIAK

Musika betidanik erabili izan da, erritual eta ospakizun guztietan betidanik egon delarik. Beraz, gizakia Lurrean egon denetik egon da.

Emozioak adierazteko erabiltzen da. Gizakiaren ezinbesteko elementua da gizarte guztietan.

Kultura ezberdinek musika egiteko estilo eta forma ezberdinak bilatzen dituzte, identifikazio baten bila.

SPENCER: *"Musika lenguaia bat da, eta lenguaia bezala ezaugarri afektibo eta erritualak ditu"*.

Baina mendebaldean ezezik, beste lurraldetan ere musika kultoa dago(adibidez: Txinan). **Musika kultoa:** idatzi egiten dena, arau batzuk jarraitzen dituena, musika egiteko sistemak aztertzen direnean.

MUSIKAREN SORRERA

Teoria ezberdinak daude, baina ezin dira demostratu dokumenturik ez dagoelako. (19.orr.)

Hitza orain dela 12.000 urte sortu zen, eta adituek esaten dute horrekin batera soinu ezberdinak egiten dituzten tresnak egin zituztela (flauta, adibidez); hau Magdaleniense garaian izan zen.

Baina lehenagotik erritmoa bazegoen, zarata egiten zuten instrumentuak: marakak, makilak... Musika izan baino zarata beldurgarriak ziren, natura edo izpirituei boterea adierazteko, baina ez plazerra adierazteko.

Mesolitiko eta Neolitikoa pasatzerakoan material berriak aurkitzen dituzte eta konturatzen dira materialen arabera soinu ezberdinak ateratzen dituztela, tinbrea garrantzia hartuz: arpa, lira, tronpeta... primitiboak azmatzen joaten zirelarik.

I.Mendea

Jesukristoren garaia. Erromatarren Inperioa paganoa zen, Jainko paganoak zituzten, kristautasuna ez zutela onartzen. Orduan, kristauek era klandestinoan elkartzen ziren kantuak egiteko eta beraien kristautasuna adierazteko.

II.Mendea Erromatarren Inperioaren unerik onena, beraien boterea zabaltzen da eta kristautasuna ere zabalduz doa, nahiz eta oraindik debekatuta egon. Bi gune daude: Erroma eta Bizantzio, eta dena handik kontrolatzen da.

III. Mendea

Krisia ematen da. Kristautasunaren barnean herejiak egoten dira. Garai horretan Konstantino erregearekin (kristau bihurtua zena) erlijio hori ez dago debekatuta.

IV.Mendea

Kristautasuna Inperioaren erlijio ofiziala da. Erromatar Inperioa desagertzen da.

V.Mendea

Orain arte hiriak oso garrantzitsuak ziren, baina Inperioaren desagerpena ondorioz jendea herrietara doa, nekazaritza nagusitzen delarik. Bizimoadua aldatzen da / eremitak bihurtzen dira.

↳ ermitaño: religioso que vive solitario


VI.Mendea

San Benito mojea Benediktinoen ordena sortzen du eta monastegien ordena sortuko da (eremitentzat). Taldeko bizitza, mojena, ordenatzeko arau batzuk asmatzen ditu.

Kristautasunean bi motatako erritualak daude:

1) OFIZIOAK

Egunak dituen 24 orduak antolatzeko.



2) MEZA

Jesusen heriotza gogoratzeko errituala. Horretarako musika kantuak egingo dituzte: **gregorianoa**. Ezaugarriak:

- Funtzionalitatea betetzen du, musika erlijiosoa da
- Testua da garrantzia duena, ez musika
- Ahotsetarako musika da, instrumentuak debekatuta zeuden
- Musika testuaren menpe dago
- Elizaren hizkuntza ofiziala erabiltzen da: latina
- Erritmoa monodikoa da, librea
- Elizaren errituala: meza eta ofizioa
- Bi motatako melodia daude: libreak (moduen araberakoak) eta errezitatiboak (oso nota gutxiekin)
- Metodoa: obrak (moduak) eta errezitatiboak (tonoak)
- Modu gregorianoak:

  Anbito

  Finalis nota: kantuen amaierakoa

  Tenor/Dominante nota: errepikatzen dena
- Bitarte estuak daude, ez dago salto handirik
- Musika eta letra arteko loturak:

  Silabikoa: silaba bakoitzeko nota bat

  Neumatikoa: 2 edo 4 nota silaba bakoitzean

  Melismatikoa: 5 silaba edo gehiago nota bakoitzean

Notazioa:

- IX. mendean neumatikoa
- XI. mendean koadratikoa
- XII. mendean Guido D`Arezzok notak asmatzen ditu
- XIII. mendean Franco de Coloniak mesuralismoa, neurketa

VII. Mendea

Eliza katolikoa sortzen da. San Gregorio Magno, lehenengo Aita Santua, dagoen errepertorioa bildu eta antolatzen du, monastegietan lantzeko.

Polifonia egiten hasten da, hasieran monastegietan, gai nagusia zortzidun edo bostdun bat altuago edo baxuago kantatuz. Gai nagusia *vox principalis* deitzen da eta bikoizten diren ahotsak *vox organalis*.

Orain arte onartzen diren bitarteak 5, 4 edo zortzidunak dira, eta gero 3 eta seidunak. Apurka-apurka ahotsak independentzia hartuz doaz, testura ezberdinak sortuz: kontrapustikoa, armonikoa. Musika gregorianoa oinarritzat hartuta bere arauekin jolastu eta esperimentatzen dute, aurrekoarekin apurtuz baina kantu gregorianoa oinarria izanik.

XI. Mendea

Notazio koadratua, tetragraman idazten zena.

Ikusi dugunez, orain arte ez dugu musikagilerik ezagutzen, arrazoia: garrantzia duena Jainkoa da, musikaren funtzioa erlijiosoa da. Gizakiak ez du garrantziarik.

Baina XII. mendetik aurrera musikariek garrantzia hartuko dute, eta badaukagu izenaren bat. Musika lanbide bezala ulertzen hasten da, eta musika taldeak sortzen dira: kapera musikalak, elizan jotzen zutenak. Haien inguruko musikariak: Leoninus (XII. mendean) eta Perotinus (XIII.ean).

Hauen musika kantu gregorianoan oinarritzen da: dagoen melodia bat hartu eta beste ahotsak bertatik sortu. Erritmoa ez da hain askea, baina bai errepikakorra; formula erritmiko bat oinarritzat hartzen dute eta berriro errepikatzen da.

XII-XIII. Mendeak

Erlijiosoa zen musikatik kanpo beste fenomeno musikal bat ematen da: trobalaritza. Monodia lirikoaren barruan dago. Frantzian sortzen da, eta bi motatako estiloak daude:

- Hegoaldean: trobalariak (Langue d`Oc)
- Iparraldean: troberoak (Langue D`Oil)

Lehenbiziko aldiz hizkuntza bernakula batean abesten da.

Instrumentuekin jotzen hasten dira, abesti profanoak ziren. Gehienakj amodiozko kantak ziren, ezinezko maitasunean oinarrituta. Honen arrazoia: feudalismo garaia zen, jauntxoen boterea oso garrantzitsua zelarik. Semeen etorkizuna edo Eliza edo zaldun izatea zen. Alabak, mojak ez baziren, ezkondu behar zuten, baina konbenientziaz, horregatik ezinezko amodioaren gaia.

Gaztelu eta korteetan kontzertuak egiten ziren.

Geroago beste herrialdetara zabalduko da: Alemania, adibidez. Garai honetan musikarien izen batzuk ezagutzen dira, baita emakumezko trobalariak ere.

XV-XVI. Mendeak: ERRENAZIMENDUA.

Gizartean, kulturan, erte mailan, aldaketa handia ematen da. Erdi Aroko garai iluna atzean uzten da.

Orain arte dena erlijioaren inguruan dago, baina orain gizakia da gune hori, unibertsoaren zentroa, nahiz eta erlijioa indar asko izan. Musika erlijiosoa egiten jarraitu

Hiria gero eta indar gehiago hartzen du, zaldunen feudalismoa baztertuz.

Pentsamendu aldaketa izugarria dago, aurkikuntza handiak egoten direlako: Ameriketak aurkitzen dira, mundua borobila dela, inprenta (musikala geroago)...

Aintzinako Grezia Klasikoa eredutzat hartzen dute, mirestu eta goraipatzen da. Pentsamendu honen bultzatzaileak humanistak izan ziren. Gizakia unibertsoaren zentrua.

Erlijio mailan ere gertakari garrantzitsu bat dago: Elizaren banaketa. Martin Luterok Erreforma protestantea egiten du:

- kantuak alemaneraz egingo dira, jendeak ulertzeko, ez latinez, inork ez zituela ulertzen;

- musika erakargarriagoa erabiltzen du; herri mailan kantatzen ziren melodiak aprobetxatuz;

- instrumentuak onartzen dira Eliza barruan; aurreko garaiko Eliza kaperak jarraitzen dute, baina instrumentuekin (15 abeslari eta 6 instrumentu jole, g.g.b)

- koral izeneko kantuak asmatzen ditu

Georago Eliza katolikoak kontraerreforma egiten du.

Garai honetako musika ezaugarri nabaria **ahotsetarako polifonia kontrapuntistikoa** da, eta beste ezaugarri batzuk:

- soinuak kontsonanteak dira
- tonalitatea garatuz joango da
- musika erlijiosoa garatuko da (mezak, oratorioak...)
- musika profanoa garrantzia hartzen doa

Orain arte ez bezala, artistak ezagutzen joango dira: Joaquin des Prés (Flandesko eskola), Palestrina (italiarra) eta Antxieta (Azpeitiarra), adibidez.

Hauetariko batzuk melodia herritar bat hartu eta lau ahotsetarako meza bat egiten zuten. Polifonia kontrapuntistikoa ematen da, baina homogeneoa da.

Lehenengo aldiz euskerazko hitzak sartu zituzten musika obra batean.

Musikaren garapena Ingalaterran hasten da, hegoaldera zabalduz (Frantzia-Flandes-Italia-Espainia).

BARROKOA(1600-1750)

1600.urtean hasi eta 1750.urtean, Haendel eta Bach musikagileen heriotzekin Barroko garaia amaitzen da. Garai honetan aldaketa handiak ematen dira. Barrokoa, gizartearen arlo guztietan agertzen diren *apaindurengatik* bereizten da.

Barroko musika, nobleziaren inguruan dagoen musika daukagu. Garai honetan, Frantzian Luis XIV erregea zen. Frantzian "**klabezinbaloa**" instrumentua sortzen da. Honekin apaindura asko egiten ziren(kordazkoa da eta tekla pultsatuz soinua ateratzen da).

Alemanian, Erdi Arotik protestantismoa dago. Erlijio mota hau musikan isladatzen da eta horrela musika protestantea dugu. Baina musika profanoaren eragina ere sortzen da.

Errenazimenduan musika bokala oso garrantzitsua zen. Barrokoan, berriz, musika instrumentalaren garrantzia ematen da, ahotsak galdu barik. Garai honetan, bibolina eta klabezina(Frantzian) ezinbesteko instrumentuak dira.

Orkestra sortzen da. Kordazko instrumentuak eta klabezina osatzen zuten. Klabezinak orkestran, laguntzailea zen, hau da oinarri armonikoa zen. Frantzian, berriz, bakarlari bezela erabiltzen zen. Instrumentu honek, zuzendariaren irudia hartuko du.

Opera sortzen da. Monteverdi musikagilea genero honetan bereizten da. Honen operaren zati batzuetan solista garrantzitsuena da. Solistari laguntzeko klabezina agertuko da(akonpañamendua edo bajo armonikoa).
Operetan agertzen den gaia mitologia greziarra da(gai profanoa). Musika sentimenduak ateratzeko erabiliko da. Testuaren hitzak sentimenduak agertzeko izango dira. Kantatuko dena adierazten da. Operan birtuosismoa agertzen da.

Entzunaldia: "Lamento d'Ariana" Monteverdi. Aria bat da. sentimenduak adierazteko operaren mugimendu bat da. solistak kantatzen du. Disonantziak agertzen dira. Lamentazio sentimendua adierazteko bitarteak beherantz egiten dute.

Entzunaldia: "Orfeo". Monteverdi. Aria.

Garai honetan *musika profanoak* garrantzi handiagoa du. Ahotsa eta instrumentua maila berean daude. *Birtuosismoa*, hau da, zailtasun teknikoak egitea, garatzen da. *Estilo dramatikoa* garrantzitsua da.

Testura armonikoa edo homofonikoa da. Ahots bat garrantzia du eta besteak laguntzaileak dira. *Idazkera bertikala* da eta melodia zabala du.

Obrak *dinamikoa* da, hots, oso azkar ematen dira.

Orkestran, *kontraste* handiko musikak daude. Solista eta instrumentuen(tutti) arteko kontrastea nabaria da. bi parte hauen arteko kontrasteari ***konzerto*** deritzogu. Eta solista talde bat eta instrumentuak daudenean ***konzertino*** deitzen da.

Hiru mugimenduetako obrak sortzen dira. Euren artean kontraste handiak agertzen dira. 1.mug: arina;2.mug: mantsoa;3.mug: arina.

Birtuosismoa solistaren irudian ikusten dugu. Musika mintzairaren barruan, berrikuntzak ematen dira: *disonantziak*.

Musika instrumentala:

- Kontzertuak: solo (solista bakarra) eta grosso (solista gehiago)
- Fugak sortzen dira.
- Suite: Errenazimenduko dantzetatik dator.

Musika bokala:

- Operak(musika profanoa)
- Oratorioa(musika erlijiosoa)· Kristoren heriotza → Bibliatik hartutako gaiak edo Kristoren bizitzako istorioak kontatzen dira
- Kantata(profanoa eta erlijiosoa)
- Pasioak(musika erlijiosoa)

Barrokoko ***autore*** garrantzitsuenak:

- Monteverdi
- Haendel
- Bach
- Vivaldi

Concertare : ahots batzuk aldi berean entzuten dira, baina nortasuna galdu gabe (polifonia)

Operetan, esan dugunez, istorio bat kontatzen da. Bi zati ezberdinak ditu:

Aria: sentimenduak espresatzen dira eta denbora gelditzen da. Melodia elaboratua da, apaindurak ditu. Normalean zati honetan solistak abesten du orkestaren laguntzaz.

Errezitatiboa: denbora aurrera doa, istorioa narratzen da. Melodia sinplea da, apaindurarik gabekoa. Instrumentuek bajo kontinuoa egiten dute.

Kantata eta oratorioetan ere zati hauek agertzen dira.

Bach eta **Haendel** hil ziren urtean Barrokoa amaitzen dela esten da.

1750-1810: KLASIZISMOA


Aurreko mugimenduarekin apurketa ematen da; lehen bisrtuosismoa, sentimenduak nagusi baziren, orain **arrazionalismoa**, musika puroa bilatzen da, oreka lortzea. Gizartean dagoen mugimendua **ilustrazioa** da, eta hau musikan isladatzen da.

Musika instrumentala nagusitzen da, ahotsetarako musika desagertu gabe. Edertasunaren ideala oreka bat lortzea da, arrazionalismoaren bidez. Honetarako egitura batzuk sortzen dira musika sortzeko.

Musika profanoa da gehienbat, erlijioak ez du horrenbesteko boterea, gizartea gero eta profanoagoa da.

Musikan ematen diren gaiak, esaldiak... simetrikoak dira, eta tonalitatearen garrantzia erabatekoa da.

Sonata forma asko erabiltzen da.



Badaude hainbat forma konposatu sonata forma dutenak lehenengo mugimenduan:

- **Laukoteak:** 1. ahotsa bibolina, 2. a bibolina, 3.a biola eta 4.a biolontxeloa
- **Sinfonia**
- **Kontzertua**

Forma konposatu hauetan, normalean, lau mugimendu daude:

	1. mugimendua	2. mugimendua	3. mugimendua	4. mugimendua
Arauak	SONATA	RONDO, BARIAZIOA, LIED...	MINUETO, SCHERZO	RONDO, BARIAZIOA, SUITE
Tenpoa	ALLEGRO	ADAGIO	ALLEGRO	VIVACE
Izaera	ENERGIKOA	LIRIKOAGOA	ALAITSUA	ALAIA
Tonalitatea	TONIKA	DOMINANTE	TONIKA	TONIKA

1810 - XIX. mendeko erdialdea: ERROMANTIZISMOA

Beethovenekin erromantizismoa hasten da. Honek, Frantziako Iraultzaren ondorioz, bere diskurtso musikala aldatzen du, moldeak apurtuz, ezin zuelako nahi zuena adierazi klasizimoaren moldeekin. Gizartean gertatzen dena musikaren bidez adierazi nahi du, eta horretarako molde berriak behar dira. (Bere 9. Sinfonian anaitasunaren ideia aipatzen du- *"Himno de la alegría"*).

Ideiak, sentimenduak, herria garrantzitsua dela... musikarekin adierazi behar da; beste arteetan (literatura, pintura...) ere, baina musika biderik egokiena zen honetarako.

Erromantizismoa: norberaren artea, sentimenduak, ideiak, adierazteko.

Sentimenduak adierazteko forma txiki berriak sortuko dira (bagatela, barkarola...), libreak direnak, eta **pianoa** da hau adierazteko erabiltzen den instrumentua, instrumentu erregea, intimitatea adierazteko oso aproposa aurkitzen dute.

Handitasuna adierazteko forma handiak erabiltzen dira, eta orkesta, pianoa bakarlari moduan agertzen delarik askotan.

Errenazimenduko beste ezaugarri bat publikoaren garrantzia da: kontzertuetara joan, sarrerak erosi...

Instrumentuetarako musikan aurreko garaiko formekin jarraitzen da, baina forma berriak ere badaude.

Ahotsetarako musika

Lied: Orain arte ABA forma zuen, baina forma ezberdinak izango ditu errenazimenduan. Ahots baterako eta pianorako obrak dira, barnekotasuna, sentimendua, adierazteko.

Opera: garrantzia handia dauka. Banaketa dago:

- *Italian egiten dena*: amodiozko gaiak nagusitzen dira; Verdik batzutan zentzu politikoa ematen zion.

- *Alemanian egiten dena:* Wagner-ek sartu zituen aldaketekin; gaia alemaniar mitologia izaten zen.

Wagner-ek opera barruan jarraipen bat egoteko ***Leit Motiv*** asmatu zuen; hau motibo musikal bat da gai edo pertsonai bat aurkezten duena. Hau entzutean badakigu zer esango duten, edo nork hitzegingo duen. Horrela, errezitatibo eta arien arteko ezberdintasuna ez da hain nabaria izango, ez dagoelako apurketa, jarraipena baizik.

Hona hemen klasizismoa eta erromantizismoaren arteko konparaketa:

KLASIZISMOA	**ERROMANTIZISMOA**
Itxura, forma, zaintzen da	Edukia zaintzen da
Arrazoia	Fantasia, irudimena
Gorteetako musika	Mundu herrikoia
Arauak, erregelak	Arauak askatasunarekin lotuta
Arrazoia, garuna, kontrola	Bihotza
Hoztasuna	Berotasuna
Mundu estatikoa	Mundu dinamikoa

XIX. mendeko erdialdetik aurrera: NAZIONALISMOA

Musika kultoa edo klasikoa europako erdialdean ematen zen, musika alemaniarra inposatzen zelarik. XIX. mendeko hainbat tokitan (Europa mailan, baina inguruetan) alemaniar inposaketa hori ez da onartzen. Nazionalismoaren lehenbiziko mugimendua Errusian eman zen, musikarien talde bat, "Bosteko taldea" sortzen da musika ezberdin bat egiteko, bertoko musika erabiliz: eskalak, melodiak, ideiak...

Talde honek eratzen duten musikalariak: A. Borodin, C. Cui, Rimski/ Korsakov, Balakirev eta Mussorgski.

Hau ez da bakarrik musika mailan ematen.

Europa mailan ikusten da Ipar Ameriketatik datozen dieiak interesgarriak direla. Garapen handi bat dago Amerikan, eta Europan idealizatzen da. Jende asko hara doa exiliora, mundu berri bezala ikusten dute. Dvorak txekiarrak bi mundu hauen ideiak elkartzen ditu.

Erromantizismotik garatu den herriaren garrantzia, toki guztietara doazen misioneroak konturatzen dira beste tokietan kultura, ohitura eta musika ezberdinak daudela, eta exotismoa ikusten dute material horretan.

Espainian ere exotismo hori garatzen eta erabiltzen dute musika egiteko (Falla, adibidez).

Esan dugun bezala, momentu honetan (80. urtetik aurrera) mendebaldekoak ez diren musika hoiek aztertzen direa, eta *"Musicología comparada"* izeneko zientzia sortzen da.

Musika exotikoak interes handia sortarazten du, konposizioan material ezberdinak erabiltzen direlarik.

Horrela, XX. mendea heldu baino lehen, **inpresionismoa** sortzen da.

XIX. mendeko azken urteak: INPRESIONISMOA

Inpresionismoa 1860. Urtetik aurrera garatzen da pinturan, eta musikan 80-90 hamarkadetan zehar.

Debussy da mugimendu honen konposagile famatuena. Inpresionismoarekin, Debussyk prestatzen du XX. mendean emango den apurketarako panorama: tonalitatea desagertu, kromatismoa, dodekafonismoa...

Beste konposagile famatuak: Satie, Ravel.

Hainbat mendetan zehar melodiak garrantzia izan du. Oraindik garrantzia emango diote, baina lantzeko era ezberdina izango da; pintzeladak modukoak dira, pinturan gertatzen den bezala.

Irudi bisual bat bezain fuertea sortarazten saiatzen dira; lerro melodikoa badago, baina desagertzen da, eta melodia zatikatuta azaltzen da (mozketak egon gabe). Honek zehaztu gabeko soinu-atmosfera sortarazten du.

Debussyk tono maiorra eta minorretan oinarritzen ez diren eskalak erabiltzen ditu, armadura badago, baina tonalitaterik ez.

Pinturan kolore bera baloratzen den moduan, musikan soinua bera baloratzen da. Soinu inpresionista soinu independienteetatik sortzen da.

XX. MENDEA

Stravinsky eta Schoënberg aurrekoa oso erabilia zegoela pentsatu zuten. Stravinskyk erritmoa eta tinbrea lantzen du, eta besteak tonalitatea guztiz apurtzen du, dodekafonismoa eta serialismoa bezalako ezaugarriak ematen direlarik.

Ahotsarekin ere tinbrea aztertzen da, dituen baliabide guztiak lantzen dira.

Aldaketa hauek espresatzeko grafia konbentzionalak ez du balio, eta musika idazteko era berriak asmatzen dituzte (57-58 orr.).

<u>FOLKLOREA ETA ETNOMUSIKOLOGIA</u>

"Musicología comparada": herriek egiten duten musika, herrikoia, baztertua egon dena,mendebaldekoa ez dena, exotikoa... aztertzen duen zientzia. Alemanian sortzen da.

Etnomusikologia: EEBB-etan sortzen da. Musika guztiak ikertu behar dira kultura kontestu batean. Berdin da kultoa edo herrikoia izatea, dena da musika eta dena aztertu behar da kontestu kulturalean. *Musikologia* edo *musikologia konparatua* baztertzen dute.

Musikologia: musika kulto edo akademikoan zentratzen da.

Folklorea (60-61 orr.)

FOLKLORE

Musikologia beti musika kultoa eta akademikoa aztertu du, hau da, Mendebaldeko musika.

Momentu honetan, beste bi ikuspegi agertzen dira:

- **Musikologia konparada(Alemania):** orain arte, herriak egiten duten musika herrikoia baztertuta egon dira. Hau musika exotikoa aztertuko du, hau da, Ekialdeko musika.
- **Etnomusikologia(Estatu Batuak):** musika guztiak ikertzen ditu kultura kontestu batean.

Musika popularra, folklorikoa eta folklorismoa(60.orr.):

MUSIKA POPULARRA: inbariablea dena, ez da mugitzen. Egilea dago.

MUSIKA FOLKLORIKOA EDO TRADIZIONALA: egilerik ez dago edo ez da ezagutzen. Anonimoa da. Ahoz transmititzen denez, bakoitzak abesterakoan aldaketa berriak sartzen ditu, horregatik bariablea da. Folklorea izateko, nozbait asmatu egin da. Nahiz eta egile bat egon, egilearen irudia ez du garrantzirik. Herriak onartzen duenean musika herrikoia bezela, folklore deitzen dugu(identitate bat dago). Eta kanta hau belaunaldiz-belaunaldi transmitituko da.

FOLKLORISMOA: intentzionalitatea dago; aspektu ideologikoa, komertziala eta artistikoa du. Era naturalean bizi da. Manipulazioa ematen da. Noiz esaten dugu folklorismoa dela?

- Herri batean musika bat asmatzen dutenean, tradizioa jarraitzeko(adb: Mari Jaia)..
- Testuingurutik kanpo ematen denean(denbora, lekua). Adb: euskal dantza Madrilen entzun.

ETNOMUSIKOLOGIA(65.orr.): zer da? eta zeintzu korronte daude?

Bi korronte:

- Mendebaldeko musika lantzen ez dutenek: berdin zaie zein lekutako musika den. Kultura kontutan izan gabe.
- Kultura garrantzia du.